

BERTSO TERAPIAK

Irakaslea

ANDONI EGAÑA. 1961eko urriaren 2an jaio zen, Zarautzen (Gipuzkoa). Gaur egun Zarautzen bizi da, baina Gasteizen ere. Arabako eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuan, eman zituen urte batzuk. Euskal Filologiako lizentziaduna da. Gaur egun erabat sorkuntzari emana bizi da: bertsolari gisa ez ezik, telebista saioetako gidoigintzan eta idazle moduan ere nabarmendu da. Literaturan hainbat esparru jorratu ditu eta euskal prentsan kolaborazio asko egin ditu iritzi-emaila moduan. Disko bat ere badu argitaratua berak idatzitako bertsoekin, eta besterentzat ere idatzi izan ditu kantuak 80ko hamarkadaren bukaeratik aurrera, 90eko hamarkadan batik bat, bera izan da bat-bateko bertsogintzaren ordezkari nagusietakoa.

Bertsolari ez ezik, ikertzaile, aztertzaile eta teorizatzaile moduan ere nabarmendu da Andoni Egaña. Berezi azpimarratzekoa da bat-bateko bertsoa sortzeko prozesua azaltzeko eta ezagutarazteko egin duen ekarpena. Bat-bateko bertsoa beste kultur adierazpide batzuekin (dantza, trikitia, poesia, musika...) uztartzeko egin diren esperientzia askotan parte hartu du. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kide izana da urte askoz, eta Ikerketa Saileko buru. Euskal Herriko bertsolari txapelduna da lau ediziotan (1993, 1997, 2001, 2005).

Azalpena eta helburuak

Nahiz eta bertsoak sortzeko asmorik ez izan, horren ezagutzan era parte-hartzaile batean sakontzeko bertsozaleen elkargunea.

Helburuak:

- Talde bati, bertsolaritzari buruz era atsegingarri batean aritzeko aukera eskaini.
- Idatzita dauden bertsoen bilduma bat aukeratu eta horietaz mintzatu.

Nori zuzenduta

Helduak

Egutegia - Ordutegia

Urriak 17,24,31 / Azaroak 7,14,21
Osteguna 19:15-21:15

Hizkuntza

Euskara